

2013ko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA ETA AUDITORETZA
2014ko URRIA



AURKIBIDEA

	Or.
1 SARRERA	3
2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA	4
3 KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA	7
4 2013KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA.....	8
4.1. 2013KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK	9
4.1.1. TIPOLOGIAREN ARABERA	9
4.1.2. TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA	10
4.1.3. ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA	18
4.1.4. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA	21
4.1.5. ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK	22
4.2. 2013KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK	23
4.2.1. ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA	24
4.2.2. LIZITATZAILEEN AZTERKETA	25
4.2.3. ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK	30
4.2.4. ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA	31

ERANSKINAK

I. ERANSKINA	2013an onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera	47
II. ERANSKINA	2013an onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera	48
III. ERANSKINA	2013an onartutako kontratuak, esleitzeko eraren arabera	49
IV. ERANSKINA	2013an onartutako kontratuak, espedientearen tramitearen arabera	50
V. ERANSKINA	2013ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera	51
VI. ERANSKINA	2013ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera	71
VII. ERANSKINA	2013ko esleipenak, departamentuaren, kontratu motaren eta lizitatzaileren arabera	88
VIII. ERANSKINA	2013ko esleipenak, lizitatzaileren arabera	104



1 SARRERA

Maiatzaren 22ko 25/2012 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek egindako kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuari. Orobat, eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere agintzen zaio zerbitzuari dekretu horretan.

Hori guztia betez, Memoria hau aurkezten da Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean egindako kudeaketaren ikuspegi integral bat eskaintzeko.

Memoria bi ataletan egituratuta dago:

1. Kontratazio alorrean Foru Aldundiari aplikagarri zaion araudiaren aipamen laburra.
2. Foru Aldundiko 2013ko kontratuen kudeaketari buruz Zerbitzu honetan dauden datuen azterketa. Ekitaldian lizitatu eta esleitutako kontratuen inguruko datu eta estatistikak ere jasotzen dira, eta konparazioak egiten dira 2012. urtearekiko.



2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

◆ Kontratazio administratiboaren alorrean aplikagarria den legeria

2013ko ekitaldian honako legeria izan du aplikagarria Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean:

1.- Aurrenik, Estatuko Oinarrizko Legeria (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko legeria dira:

- ⇒ 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

2.- Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
- ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzeko.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzeko.

3.- Garapeneko legeria autonomikorik ezean, honako hauek dira aplikaziozkoak: Herri Administrazioen Kontratuen Legea (testu bategina), Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 1098/2001 Errege Dekretua, 817/2009 Errege Dekretua, eta kontratazioari dagokionez Estatuak ematen dituen eta oinarrizko legeria osatzen ez duten gainontzeko xedapenak.

4.- Azkenik, ordezeko izaeraz, zuzenbide pribatua ere da aplikagarria.



◆ Kontratazio administratiboari aplikatu dakiokeen foru araudia

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboaren alorrean, salbu eta bere Administrazio organoen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatutuak 37. artikuluan aitortuta duen auto-antolaketa eskumenaren barruan sartzen diren gaietan. Atal honetan xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2002. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituenak, kontratazio eta erosketara zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraituz.
- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeko dena.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen egitura organiko eta funtzionala onartzen dituzten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzen duena.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 1998ko otsailaren 24koa, Zerbitzu Orokorren Kontratazio eta Homologazio Mahaian hainbat ondasun modu zentralizatuan eskuratu eta hornitzekotzat jotzen dituen eta haien kudeaketa 1998ko ekitaldirako eta hurrengoetarako arautzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko apirilaren 24koa, kontratazio administratiboaren alorrean Foru Aldundiko lan eta zerbitzuetan edo berak sustatutakoetan segurtasun eta osasun gaietarako beharrezko arauak onartzen dituen (GAO. 2001-05-29).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko ekainaren 12koa, II. kapituluko hainbat partida kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2004ko otsailaren 3koa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen luzapenetan erabili beharrezko adierazle ofiziala ezartzen duena.



- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2005eko apirilaren 26koa, hainbat aurrekontu-kontzeptu kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituena (2005eko ekainaren 7ko Erabakiak zuzendua).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko uztailaren 7koa, Aldundiko langileen 2009-2011ko lan baldintzak arautzen dituena. 17. apartatuan onartu zen langileen subrogazioa baldintza administratibo berezien agirietan sartzea.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru laguntzetan sartzea onartzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2013ko martxoaren 13koa, kontratuen eta prestazio hitzarmenen alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikatuko dituen neurrien jarraibidea onartzen duena abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikokoa 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoa betetzeko.



3 KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta “Uliazpi Fundazioa” Organismo Autonomoak egiten dituzten administrazio kontratu guztiak erregistratu behar dira Kontu-hartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuak kudeatzen duen Erregistroan. Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legeriaren arabera kontratu txikitzat hartzen direnak.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak ez dira jasotzen erregistroan, haien lizitazio aurrekontuak ez badu gairitzen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoak, kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoa. Hau da, kanpoan geratzen dira beren zenbatekoarengatik kontratu txikiak bezala tramitatu badaitezke.



4 2013KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko honako irizpideak jarraitu dira:

2013. urtean onartutako kontratuen datuak kontratazio espedientea urte horretan baimendua duten prozesuei dagozkie.

2013. urtean egindako esleipenen datuak ekitaldi horretan aurrera eraman diren esleipenei buruzkoak dira, alde batera utzita kontratua aurreko ekitaldietan onartu den edo ez.

Esleipen horiei buruzko datuak kontratu bat osatu dezaketen loteetako bakoitzari dagozkie. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela. Lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomia izan dezakeen neurrian, kontratuaren gainerako loteen aldean, zerrendak eta estatistikak prestatzerakoan lote kontzeptuarekin egin behar da lana, eta ez, ordea, kontratu kontzeptuarekin. Horrexegatik, 2013. urtean esleitutako lote kopuru osoa kontratu guztiena baino handiagoa da.

Beren zenbatekoagatik publizitaterik gabeko prozedura negoziatueterako finkatutako gehieneko muga barruan sartzen diren kontratuak prozedura horretan tramitatutzat hartu dira.

2013ko ekitaldian 178 kontratazio espediente onartu dira, 107.192.095,07 euro guztira. Ondorengo ataletan espediente horien banaketa aztertzen dugu hainbat irizpideren arabera.

¹ *Ikus laburpen taulak Memoriaren I. eranskinean. Bertan 2013an onartutako kontratuak ageri dira, departamentuen eta kontratu moten arabera.sailkatuak*



4.1. 2013KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK

4.1.1. TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean araututa dauden kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2013. urtean onartutako kontratuek ondorengo taulan zehaztutako banaketa ageri dute. Datuak 2012. urtearekin alderatu dira.


KONTRATU MOTA	KONTRATU KOPURUA		ZENBATEKOA		
	2012	2013	2012	2013	% 2013/2012
Obrak	12	48	85.405.966,28	17.743.526,09	-%79,22
Hornidurak	20	22	3.980.770,33	12.501.269,44	%214,04
Zerbitzuak	88	99	25.266.052,25	38.552.351,55	%52,59
Zerbitzuen kudeaketa	6	2	13.848.573,13	23.958.306,24	%73,00
Bereziak	1	-	137.000,00	-	-
Pribatuak	12	7	3.056.085,19	14.436.641,75	%372,39
GUZTIRA	139	178	131.694.447,18	107.192.095,07	-%18,61

Aurkeztutako datuak 2012ko datuekin konparatuta, ikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen kontratuen kopuruak gora egin duela nabarmen, haien zenbatekoa jaitsi bada ere. Horrela, kontratazioak 139tik 178ra igo dira, eta lizitatutako aurrekontua % 18,61 jaitsi da 2012. urtean lizitatutakoaren aldean (25 milioi euro ia).

Tipologiari erreparatuz gero, obra kontratuen kopuruak igoera nabarmena du: bider lau egin du (12tik 48ra). Bestalde, zerbitzu kontratuek ere gora egin dute (88tik 99ra), eta hornidura kontratuak apur bat igo dira (20tik 22ra). Aldiz, zerbitzuak kudeatzekoak 6tik 2ra jaitsi dira, eta pribatuak 12tik 7ra.

Ikuspegi ekonomikotik, zerbitzu kontratuak dira nagusiak, 2013an lizitatutako aurrekontuaren % 35,97 hartzen dutelako. Ondoren, zerbitzu kontratuak datoz zenbateko osoaren % 22,35eko portzentajearekin. Bestalde, obra kontratuetan lizitatutako zenbatekoak hirugarren tokia hartzen du, zenbateko osoaren % 16,55. Horrek agerian uzten du aurreko ekitaldiaren aldean asko jaitsi dela kategoria hau (aurreko ekitaldian % 64,85koa izan zen bere portzentajea, guztietan handiena).

Hiru kontratu mota horietan lizitatutako zenbatekoak batuta, Aldundiak 2013an lizitatutako zenbateko osoaren % 75 dira ia. Gainerako zenbatekoa honela banatzen da: kontratu pribatuak (% 13,47] eta hornidura kontratuak (% 11,66).



Erabilitako kontratuen tipologiarekin jarraikiz, eta orain haien zenbatekoari erreparatuta, 2012. urtearekin egindako konparazioan nabarmendu behar dugu obra kontratuak asko jaitsi direla (68 milioi euro inguru, % 79,22), nahiz eta haien kopurua asko igo den. Izatez, kontratu mota honetan bakarrik jaitsi da zenbatekoa.

Aurreko ekitaldiaren aldean zenbatekoa handitu duten kontratuei dagokienez, aurrenik pribatuak aipatu behar dira, % 372,39ko igoera portzentuala izan dutelako. Gehikuntza 11 milioi eurokoa baino handiagoa izan da, eta hori kontratu kopurua jaitsi den arren. Bestalde, hornidura kontratuak % 179,67 igo dira, kontratu bat gehiago bakarrik formalizatu arren (gehikuntza 7 milioi eurotik gorakoa da). Gainerakoetan, igoera portzentual garrantzitsuak ikusten dira bai zerbitzuak kudeatzeko kontratuetan (% 73 inguru, 10 milioi euro gehiago, kontratu kopurua jaitsi arren) eta bai zerbitzu kontratuetan (%52,59).

4.1.2. TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak besteek baino kontratatazio gehiago tramitatu ditu, kopuru osoaren % 32,58. Haren atzetik Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua dator, % 16,29rekin. Bi departamentu kenduta –Ogasun eta Finantza (% 1,69) eta Foru Administrazio eta Funtzio Publikoa (% 2,81)–, gainerakoak 5 eta 12,5 puntu portzentualen artean mugitzen dira.


Gastu baimenduari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da, bere gastu bolumenak 2013ko gastu osoaren % 45,05 hartzen baitu. Atzetik Gizarte Politikako Departamentua dago, % 21,34ko portzentajearekin.




2013AN ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA

	KOP.	Kop. os/%	ZENBATEKOA	Kop. os/%
Diputatu Nagusia	9	%5,06	475.245,58	%0,44
Ogasuna eta Finantzak	3	%1,69	293.822,42	%0,27
Gizarte Politika	22	%12,36	22.877.811,67	%21,34
Kultura, Gazteria eta Kirola	21	%11,80	4.631.367,03	%4,32
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	5	%2,81	311.449,36	%0,29
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	13	%7,30	839.735,25	%0,78
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	29	%16,29	17.412.910,75	%16,24
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	58	%32,58	48.286.254,73	%45,05
Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala	18	%10,11	12.063.498,28	%11,25
GUZTIRA	178	%100,00	107.192.095,07	%100,00

ONARTUTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA



BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian, departamentuz departamentu xehatuko dugu informazio hori.

Diputatu Nagusia

2013ko ekitaldian 9 kontratazio espediente onartu dira (475.245,58 euro guztira), hau da, ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren % 0,44.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Zerbitzuak	13	9	840,0	475,2
Pribatuak	2	-	1.060,5	-
	15	9	1.900,5	475,2

Departamentu honek bi kontratu mota erabili ditu 2013ko ekitaldian, zerbitzuen kontratua eta kontratu pribatua. Hiru zerbitzu kontratu dira zenbatekorik handienekoak: berdintasun alorreko komunikaziorako aholkularitza estrategikoaren zerbitzua, "Gipuzkoa Berria" aldizkaria inprimatu eta Gipuzkoako herri guztietan banatzeko zerbitzua, eta Foru Aldundiaren prentsa dosierra egunero egiteko zerbitzua → 72.479,00 euro bakoitza.



Ogasuna eta Finantzak

2013ko ekitaldian 3 kontratazio espediente onartu dira (293.822,42 euro guztira), ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren % 0,26.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Zerbitzuak	2	3	64,9	293,8

Departamentu honek kontratu mota bakarra erabili du, zerbitzuena. Egin dituen kontratuen artean, bereziki aipatzekoa da, duen zenbatekoarengatik, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundientzat Bingoa izeneko jokoaren kartoiak egin, inprimatu eta banatzeko kontratua → 212.522,42 euro.

Gizarte Politika

Departamentu honek 22 kontratu egin ditu 2013ko ekitaldian, eta 22.877.811,67 euroko aurrekontua lizitatu du guztira. Ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu osoaren % 21,34 da gastu hori.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	2	2	3.235,7	440,4
Zerbitzuak	8	18	3.930,4	12.099,8
Zerbitzuen kudeaketa	4	1	13.114,5	10.311,2
Pribatuak		1		26,4
	14	22	20.280,6	22.877,8

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, departamentu honek zenbateko handiko kontratuak tramitatu ditu oro har, aurreko ekitaldiko zenbatekoa gainditzera. Haietatik bederatzik 500.000 euroko atalasea gainditzen dute, eta haien artean bost 1.000.000 eurotik gora daude. Hiru hauek dira garrantzitsuenak:

- Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako 5 harrera zentroyen kudeaketa Donostian, Aian eta Irunen → 10.331.250,72 euro.
- Babesgabetasun egoeran dauden adingabeen familia harrerako laguntza teknikoa → 4.147.739,32 euro.



- Egoain gerontologia zentroan zaintza pertsonalak emateko zerbitzua
→ 4.147.739,32 euro.

Kultura, Gazteria eta Kirola

Departamentu honek 21 kontratu kudeatu zituen iaz, eta honela banatzen dira:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	-	1	-	1.472,6
Hornidurak	3	1	172,2	61,2
Zerbitzuak	17	18	1.181,9	2.909,5
Zerbitzuen kudeaketa	2	-	734,1	-
Bereziak	1	-	137,0	-
Pribatuak	6	1	295,4	188,0
	29	21	2.520,6	4.631,3

Aurkeztutako datuen arabera, Departamentu honek tramitatu dituen kontratu gehienak zerbitzu kontratuak dira, eta kontratu modalitate horretan baimendutako gastu bolumena zenbateko osoaren % 62 inguru da.

Baimendutako gastuaren ikuspegitik, kontratu hau dugu zenbatekorik handienekoa: "Donostiako Txuri Urdin izotz jauregiko makinaren gela berritzeko eta beste berrikuntza batzuk egitea" proiektuko 1. eta 2. loteak exekutatzea. Zenbatekoa: 1.472.647,91 euro.

Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa

Departamentu honek 5 kontratazio espediente onartu ditu 2013an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Hornidurak	1	1	71,4	150,0
Zerbitzuak	2	4	285,4	161,4
	3	5	356,8	311,4

Baimendutako gastuaren zenbatekoari begiratzuz gero, Esku Hartzeko eta Suhiltzaile Etxeak Kudeatzeko Zerbitzuari ikuspen termikoko 12 kamara hornitzeko kontratazioa dugu zenbatekorik handienekoa: 150.000 euro. Beste bi kontratuek ez dute gainditzen 100.000 euroko atalasea.



Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa

Departamentu honek 13 espediente onartu ditu 2013. urtean zehar, eta 839.735,25 euroko aurrekontua lizitatu du, 2012. urtean baimendutakoa halako bi baino gehiago. Zerbitzuen kontratua da gehien erabili dena: 10 espediente. Orobat, kontratu kategoria honetan baimendu den zenbatekoa Departamentuak baimendutako gastu osoaren % 70 baino handiagoa da.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	-	1	-	111,3
Hornidurak	3	2	552,1	164,1
Zerbitzuak	18	10	1.791,1	564,3
Pribatuak	2	-	179,6	-
	23	13	2.522,8	839,7

Departamentu honetan gastu bolumen gehien tramitatzea ekarri duen kontratua Gipuzkoako Lurralde Historikoan albaitaritzaz zeregin ofizialak egiteko kontratua da → 233.500,00 euro. Beste bi kontratuk ere 100.000 euroko atalasea gainditu dute.

Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Departamentu hau dugu, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin batera, 2013an gastu bolumen baimendua gehien murriztu duena 2012 urtearekiko.

2013an 29 kontratazio espediente onartu ditu departamentu honek, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	1	9	86,0	2.560,2
Hornidurak	1	2	92,3	189,2
Zerbitzuak	16	15	1.061,5	876,6
Pribatuak	1	3	59,9	13.784,9
	19	29	1.299,7	17.412,9

Onartutako 29 espedienteetatik, 15 zerbitzu kontratuak dira, baina kontratu mota horrek baimendutako gastu bolumenaren % 0,50 baino ez du hartzen. Gastu bolumenik handiena tramitatu duen espedientea (zenbateko osoaren % 76,65)



Donostiako Peñaforida kaleko 1 zenbakian eta Garibai kaleko 13 zenbakian Kutxabank-en eraikina salerosteko kontratu pribatua da → 13.348.468,39 euro.

Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 58 kontratu onartu zituen aurreko ekitaldian, honela banatuta:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	8	34	81.871,0	12.928,5
Hornidurak	1	2	25,9	1.057,2
Zerbitzuak	9	21	15.925,6	20.653,5
Zerbitzuen kudeaketa	-	1	-	13.647,1
	18	58	97.822,5	48.286,3

Kontratuak kategorien arabera aztertzen baditugu, zerbitzu kontratuak nagusitzen dira zenbatekoari dagokionez (% 42,77 dira). Haiei gehitzen badiegu zerbitzuak kudeatzeko egin den kontratu bakarra, 2013an lizitatutako zenbatekoaren % 71,04 hartzen dute.

Gastu baimenduari espedienteak banaka hartuta erreparatzen badiogu, hiru espediente hauek nabarmendu behar ditugu:

- Tolosaldeko eskualdean errepide bidezko hiri arteko bidaiarien garraio zerbitzua egiteko emakida → 13.647.055,52 euro.
- Gipuzkoako A eremuko (Ekialdea) eskualde sareko eta sare lokaleko errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 9.059.220,24 euro.
- Gipuzkoako B eremuko (Mendebaldea) eskualde sareko eta sare lokaleko errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 7.765.159,72 euro.

Obra kontratuen kapituluan, bereziki aipatzekoa da GI-636 errepidea Ospitaleko biribilgunetik Hondarribiko lotunera (11.900 - 12.500 k.p.) zabaldu eta hobetzeko proiektuko lanen kontratazioa (1. fasea), 2.404.890,92 euroko lizitazio aurrekontua duena.

Kudeaketa zentralizatua

Gastu tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak egiten ditu, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak araututako Zerbitzu Orokorretako Kontratazio eta Homologazio Mahaiaren bitartez.

11 kontratu tramitatu dira Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez, 3.047.000,70 € guztira.



Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Obrak	1	1	213,2	230,5
Hornidurak	8	9	788,2	2534,2
Zerbitzuak	2	-	70	-
Pribatuak		1	-	283,0
	11	11	1.071,4	3.047,7

Zerbitzu Orokorretako Mahaiak gehien tramitatzen duen kontratu mota hornidurena da: kudeaketa zentralizatukotzat aitortutako kontratu guztietatik 9. Litzazio zenbatekoaren ikuspuntutik ere hornidura kontratuak ageri dira lehen tokian, lizitatutako zenbatekoaren % 83,16 hartzen baitute. Atzetik, tramitatutako kontratu pribatu bakarria dator (% 9,28), bai eta obra kontratu bakarria ere (gainerako %7,56a).

Zenbatekoaren arabera, honako kontratuak nabarmentzen dira:

- Esku Hartzeko eta Suhiltzaile Etxeak Kudeatzeko Zerbitzurako eskailera kamioi baten hornidura → 674.000,00 euro.
- Foru Aldundiaren erantzukizun zibileko aseguru kontratua (orokorra, patronala eta profesionala) → 283.000,00 euro.

Foru Kontratazioen Zentrala

Gastu tipologia honetan, litzazio zenbatekoa Foru Aldundiaren gastu aurreikuspenekin bakarrik lotzen da.

Foru Kontratazioen Zentralak irekitako espedienteak kudeatu eta kontratatzeke, esparru-akordioa erabiltzen da, Zentrala erregulatzeko duen araudiak exijitzen duen bezala (otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretua, 6.1 artikulua). Espediente bakoitzari atxikitako enteari dagokio beti kontratazio alorreko araudiaren arabera zilegi diren kontratuak esleitu eta formalizatzea.

Guztira 7 kontratu tramitatu ditu Foru Kontratazioen Zentralak, eta zenbateko osoa 9.015.000,80 euro da.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa (mila €-kotan)	
	2012	2013	2012	2013
Hornidurak	3	5	2.278,5	8.345,3
Zerbitzuak	1	1	115,2	516,2
Pribatuak	1	1	1.460,7	154,3
	5	7	3.854,4	9.015,8



Foru Kontratazioen Zentralean gehien tramitatu den kontratu mota hornidurena izan da, 5 guztira. Lizitazio zenbatekoaren ikuspuntutik ere hornidura kontratuak ageri dira lehen tokian, lizitatutako zenbatekoaren % 92,56ko portzentajearekin.

Zenbatekoaren arabera, honako kontratuak nabarmentzen dira:

- ❑ Argindar elektrikoa hornitzeko esparru-akordioa → 4.277.421,39 euro.
- ❑ Argindar elektrikoa hornitzeko esparru-akordioa (prozedura negoziatua, behin-behineko espedienteak) → 2.247.723,83 euro.
- ❑ Ibilgailuak errentamendu bidez –erosteko aukerarekin– hornitzeko esparru-akordioa: 1.368.140,00 euro.

4.1.3. ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA

Administrazio kontratuen prozedura eta esleipen moduei dagokienez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak honako eskema ezarri zuen:

ESLEITZEKO PROZEDURA	ESLEITZEKO ERA
IREKIA	LEHIAKETA
MURRIZTUA	ENKANTEA LEHIAKETA
NEGOZIATUA: <ul style="list-style-type: none"> ❑ publizitatearekin ❑ publizitaterik gabe 	

Eskema hori bera errepikatzen da bai Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legean eta bai, geroago, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoan, nahiz eta horietan badiren zenbait ñabardura bereizgarri. Horrela, beste figura bat agertzen da, lehia-elkarrizketarena, oraindik ezein departamentuk erabili ez duena. Lehia-elkarrizketan, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek eskaintza bat aurkez dezaten.

Kontratuak esleitzeko erari dagokionez, araudi berriaren arabera, bereizi daitezke balorazio irizpide bakarra prezioa duten kontratuak (memoria honetan enkanteekin parekatu ditugunak) eta hainbat esleipen irizpide duten kontratuak (lehiaketekin parekatu ditugunak). Hori guztia egiten da kontuan hartuta sailkapen hori ez dagoela berariaz jasota ez SPKLaren inongo xedapenetan ez testu bateginean.



Ondoko taulan ikus daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013an onartu dituen kontratuei buruzko datuak, esleipen prozeduraren arabera banatuak²:

DEPARTAMENTUA	IREKIA			NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE		
	KONT. KOP..	ZENBATEKOA		KONT. KOP.	ZENBATEKOA	
		%	€		%	€
Diputatu Nagusia	1	12,11	58.080,00	8	87,78	417.165,58
Ogasuna eta Finantzak	1	72,33	212.522,42	2	27,67	81.300,00
Gizarte Politika	13	96,69	22.121.667,16	9	3,31	756.144,51
Kultura, Gazteria eta Kirola	13	83,36	4.138.531,62	8	10,64	492.835,41
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	1	48,16	150.000,00	4	51,84	161.449,36
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	3	48,70	408.935,00	10	51,30	430.800,25
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	9	15,50	2.698.726,29	20	84,50	14.714.184,46
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	24	88,24	42.607.402,09	34	11,76	5.678.852,64
Kudeaketa zentralizatu eta Kontratazioen Zentrala	4	20,22	2.439.415,00	14	79,78	9.624.083,28
GUZTIRA	69	69,81	74.835.279,58	109	30,19	32.356.815,49

Hasteko, esan behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiko ezein espedientetan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

Aurreko taulan jasotako datuek erakusten dutenez, Foru Aldundiko departamentuek bi prozedura erabili dituzte kontratuak esleitzeko. Alde batetik, prozedura irekia erabili da, eta, haren bidez 69 kontratu lizitatu dira, alegia, kopuru osoaren % 38,76 eta baimendutako gastu osoaren % 69,81.

Bestalde, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz 109 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren % 61,24. Hala ere, kasu honetan bere kuantifikazio ekonomikoa askoz txikiagoa da, lizitatutako zenbateko osoaren % 30,19 baino ez.

Zifra horiek erakusten dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatuek pisu handiagoa dutela lizitazio kopuruan. Segur aski, horren arrazoia neurri batean da prozedura hau erabiltzeko ezarrita dauden behe mugak gehitu egin direla.

Datu horien arabera, zazpi departamentu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatua gehiagotan erabili dutenak kontratuak esleitzeko garaian. Era horretan,

² *Ikus laburpen taulak Memoriaren II. eta III. eranskinetan. Bertan 2013an onartutako kontratuak ageri dira, esleitzeko prozeduraren eta eraren arabera.*



azken urteotako joerari eusten zaio, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak gehitu egiten dira berriro.

Jarraian, azalduko dugu zer arrazoi eman dituzten maizago publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili duten departamentuek prozedura hori justifikatzeko:

Diputatu Nagusiaren Kabineteak adierazi du publizitaterik gabeko 8 prozedura negoziatu erabili dituela kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak direlako.

Gizarte Politikako Departamentuaren kasuan, bere 9 espedienteetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua justifikatzeko adierazi du lizitazio aurrekontuak ere legeak ezarritako goi mugen azpian daudela.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak ere kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak izateagatik justifikatu ditu publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetako zazpi. Zortzigarrena publizitate babesari buruzkoa da, eta arrazoi teknikoek lanak enpresaburu bakar baten esku uztera behartu dute.

Bere aldetik, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak kontratuen zenbatekoagatik justifikatu ditu publizitaterik gabeko lau prozedura negoziatuak.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak zirelako justifikatu du hamar kontratutan publizitaterik gabe prozedura negoziatua.

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak erabiltzeko. Beste kontratu batzuetan ere, arrazoi tekniko eta artistikoak argudiatu ditu lanen exekuzioa enpresaburu bakar baten esku uzteko.

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak, zenbatekoa argudiatu du prozedura hau hogeita bost kasutan erabiltzeko, eta bederatzitan tramitazioa presazkoa izateagatik.

Ogasun eta Finantza Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko bi prozedura negoziatuak erabiltzeko.

Azkenik, Kudeaketa Zentralizatuak eta Kontratazioen Zentralak kontratuen zenbatekoa argudiatu dute publizitaterik gabeko zortzi prozedura negoziatu erabiltzeko. Beste seiak erabili dira Kontratazioen Zentralak egindako esparru-akordioetatik datozelako.

Esleitzeko erari dagokionez, lizitatutako kontratazioen % 38,76 lehiaketa bidez esleitu da, gastu bolumenaren % 69,81. Enkantearen figura ez da behin ere erabili, aurreko ekitaldian bezala.

Sailkapen horrekin lotuta -eta aurreko ekitaldiko memorian egin genuen bezala-, adierazi behar dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legea indarrean jarri denetik lehiaketak eta enkanteak desagertu direla kontratuak esleitzeko modu gisa. Horien orde, orain irizpide bakarreko kontratuak eta irizpide bat baino gehiagoko kontratuak erabiltzen dira esleipenduna hautatzeko. Gure kasuan, sailkapena mantendu dugu



bereizi nahi izan dugulako zer kasutan izan den prezioa kontratua esleitzeko irizpide bakarra (enkanteak) eta noiz erabili den esleipenetan irizpide bat baino gehiago (lehiaketak).

ESLEITZEKO ERA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KOP. OSOAREN G/%	ZENBATEKO OSOAREN G%
Lehiaketa	69	74.835.279,58	%38,76	%69,81
Enkantea	0	0,00		
Negoziatua	109	32.356.815,49	%61,24	%30,19
GUZTIRA	178	107.192.095,07		

4.1.4. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Kontratazio espedienteak arruntak, presakoak zein larrialdikoak izan daitezke.³

Ondoko taulan ikus daitekeenez, espediente gehienak tramitazio arruntekoak izan dira (% 94,94), aurrekontu lizitatuaren % 97,76.

TRAMITEA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRATU KOP. %	ZENBATEKO OSOA %
Arrunta	169	104.792.795,87	%94,94	%97,76
Larrialdikoa	9	2.399.299,20	%5,06	%2,24
GUZTIRA	178	107.192.095,07		

Aurkeztutako datuen arabera, 2013an bederatziz espediente tramitatu dira larrialdiko prozeduraz, eta presako prozedura ez da behin ere erabili. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren espedienteak dira denak, hauek hain zuzen:

- N-1 errepidean lur-erazketako ezpona Gasteiz-Irun norabidean egonkortzeko neurriak hartzea.
- Elgoibarren N-634 errepidean lur-erazketako ezpona egonkortzeko neurriak hartzea.
- GI-2637 errepideko 17,195 kilometro puntuan izandako luiziaren ondorioz egonkortze lanak egitea.
- GI-3881 errepideko 0,975 kilometro puntuan izandako luiziaren ondorioz egonkortze lanak egitea.
- N-1 errepidean lur-erazketako ezpona Gasteiz-Irun norabidean egonkortzeko neurriak hartzea.
- GI-2634 errepideko ezpondan, Azpeitia eta Errezil artean gertatutako luiziaren ondorioz egin beharreko larrialdiko lanak egitea.
- Azkoitiko Martirieta auzoan GI-3172 errepidean izandako luiziak eragindako larrialdi lanak egitea.

³ Ikus memoriaren IV. eranskinean 2013an onartutako kontratuen xehetasuna, espedientearen tramitazioaren arabera.



- Deban, GI-634 errepidean eustorma berreraikitze lanak egitea.
- Azkoitiko Martirieta auzoan, GI-3172 errepidean, luizia izandako mazela egonkortzeko eta errepidea berregiteko neurriak hartzea.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoaren arabera, tramitazio hau erabiliko da Administrazioak berehala jardun behar duenean hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako.

4.1.5. ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK

2013. urtean onartutako kontratuen kapitulu orokorreko atal honetan, hainbat arrazoiengatik azkenik gauzatu ez diren lizitazioak izango ditugu hizpide.

Horrela, erregistratutako datuak aztertuta, ikusgai jartzen da lau espediente geratu direla esleitu gabe. Ondorengo taulan espediente horiek identifikatuko dira, haien lizitazio zenbatekoa adieraziko da, eta, azkenik, laburki azalduko da zer arrazoi eman dituzten departamentuek haiek ez esleitzeko:

1.- Aldundiaren migrazioko eta aniztasuneko dinamizazio batzordearen dinamizazio zerbitzua.	44.999,90
Aurkeztutako eskaintza bakarra ez zen onartu.	
2.- GLHan gizarte larrialdiak koordinatzeko foru zerbitzua	871.143,46
Aurkeztutako eskaintza bakarra ez zen onartu.	
3.- Gipuzkoako errepideetan neguko bide-lanak egiteko urgarrien horniketa.	515.716,52
Ez zen jaso eskaintzarik.	
4.- Mendetasuna baloratzeko eskatzen dutenei buruzko informazioa lortzeko zerbitzua.	857.713,20
Ez zen jaso eskaintzarik.	
GUZTIRA	2.289.573,08

Ikus daitekeenez, esleitu gabe geratu diren lizitazioen amaierako zenbatekoa 2012koa baino askoz handiagoa da (868.868,64 euro).



4.2. 2013KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK

Kontratazioari buruzko Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2013. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartu dira, alde batera utzita kontratua lehenago onartu den edo ez. Aitzitik, 2013an onartu bai baina ekitaldi horren amaieran esleitu ez diren kontratuak kanpoan utzi dira.

Irizpide horien arabera, 2013. urtean 178 kontratu onartu dira, eta 148 esleitu. 148 kontratu horietatik, 5 kontratu 2012an onartutakoak dira eta gainerako 143ak 2013an onartu dira.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratuz, 2013. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituen kopuruarenak izango dira, hau da, esleipen kopurua handiagoa izango da esleitutako kontratuena baino.

Zehazki, 2013. urtean esleitutako 148 kontratuetan 153 lote ageri dira. Lote kontzeptua ez da ageri bakarrik kontratuaren xedea aurrez adierazitako lotetan banatuta dagoenean, esleipendun bat baino gehiago izan dezaketen kontratu guztietan ere ageri da.

Hortaz, 2013. urtean 153 lote esleitu dira, 62.802.799,35 euro guztira. Ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoei erreparatzen badiegu, hiru hauek nabarmendu behar ditugu beren zenbatekoagatik:

- ❑ Peñaforida kaleko 1 zenbakian eta Garibai kaleko 13 zenbakian Kutxabank-en eraikina erostea → 13.348.468,39 euro.
- ❑ Gipuzkoako A eremuko (Ekialdea) eskualde sareko eta sare lokaleko errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 7.016.366,11 euro.
- ❑ Gipuzkoako B eremuko (Mendebaldea) eskualde sareko eta sare lokaleko errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 5.679.437,80 euro.



4.2.1. ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2013. urtean batekoz beste % 14,33ko beherapena izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen esleipenetan, eta horrek 10.502.671,96 euro aurreztea ekarri du. Beherapenen batez besteko portzentajea honela banatzen da departamentuka:

DEPARTAMENTUA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Diputatu Nagusia	%6,88	25.620,40
Ogasuna eta Finantzak	%15,12	44.428,48
Gizarte Politika	%14,08	2.481.724,31
Kultura, Gazteria eta Kirola	%8,46	100.980,11
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	%17,92	55.816,46
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	%7,90	66.379,31
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	%2,87	458.669,50
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	%20,48	6.405.119,35
Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazioen Zentrala	%16,03	863.934,04
GUZTIRA	%14,33	10.502.671,96

Aurreko taulan ikus daitekeenez, beherapen portzentajeak Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan izandako % 2,87tik Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuan izandako % 20,48raino doaz.

Departamentuetako kontratuen beherapen portzentajeak dakarren aurrezpenari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nagusitzen da, 6.405.119,35 euro murriztu edo aurreztu baititu bere lizitazioetan.

KONTRATU MOTA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Obrak	%20,09	3.136.106,95
Hornidurak	%9,24	480.375,02
Zerbitzuak	%19,63	5.369.878,83
Zerbitzuen kudeaketa	%12,93	1.417.973,41
Bereziak	%0,69	98.337,75
Pribatuak	%14,33	10.502.671,96
GUZTIRA	%20,09	3.136.106,95

Portzentualki, obra kontratuak, zerbitzukoak eta zerbitzuak kudeatzekoak dira beherapen portzentajeen batez besteko handiagoa dutenak: % 20,09, % 19,63 eta % 12,93 hurrenez hurren.



Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari erreparatuta, ikusten dugu obra eta zerbitzu kontratuak direla aurrezpen handienekoak. Izan ere, kontratu horietan izandako 8.505.985,78 euroko beherapena Aldundiak 2013ko ekitaldian egindako kontratu guztien beherapenen % 80 inguru da.

Bestetik, zenbatekoan beherapenik handiena izan duen kontratua Foru Kontratazioen Zentralak "Esparru-Akordio bidez jasogailuak mantentzeko zerbitzua" da. Kontratu hori 168.844.94 eurotan esleitu zitzaion Orona S.Coop enpresari, hasierako lizitazio prezioa 516.158,65 eurokoa zenean (347.313,71 euroko beherapena, % 67,29).


4.2.2. LIZITATZAILEEN AZTERKETA

Atal honetan aztertzen da zer entitate izan diren lizitatzailleak 2013ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek prozedura ireki bidez tramitatu dituzten kontratuetan.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutakoak ez dira kontuan hartu, kontratuen erregistroan entitate esleipendunaren datua baino ez baita jasotzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako prozedura irekietara, 243 eskaintza aurkeztu dira orotara 2013ko ekitaldian (160 entitate diferenterenak). 53 lote esleitu dira, 38.451.033,13 € guztira (esleitutako zenbateko osoaren % 61,23).⁴

Lote horietatik 8tan (% 15,09) kontratista bakarra aurkeztu da. 31 lotek (% 58,49) bi eta bost eskaintza bitartean izan dituzte, 6 lotek (% 11,32) sei eta hamar bitartean, eta 8 lotek (% 15,09) hamar eskaintza baino gehiago.



⁴ Ikus laburpen taulak Memoriaren VII. eranskinean. Bertan 2013ko ekitaldiko esleipenak ageri dira, departamentuen, kontratu motaren eta lizitatzaillearen arabera.



